

BIDEGIK DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA, A-8, AP-1 ETA BEASAIN – BERGARA AUTOBIAN, AZPIEGITURA BERRIAK, TUNELETAKO EKIPAMENDUA ETA ZORUA BERRITZEKO 188 MILIOI EUROKO BALIOA DUTEN OBRAK ESLEITU DITU

*Donostiako 2. Ingurabidean (A-8) Aritzeta – Urumeako lotunea zatiko eraikuntza eta zuzendaritza lanak esleituta.

*Zumarraga – Urretxu – Legazpi (Beasain – Bergara autobia. GI-632) saihesbideko eraikuntza eta zuzendaritza lanak esleituta.

*AP-1 autobidean, Arrasate – Eskoriatza eta Eskoriatza – Isuzkitza zatietako tuneletako segurtasun instalakuntzen ekipamendua esleituta.

*A-8 autobidean Oiartzun – Pasaia, Aritzeta – Aiete eta Zarautz – Elgoibar zatietako zoru-egituraren birgaiketa lanak esleituta.

ARDATZA	ZATIA	KONTRATUA	ADJUDIKAZIODUNA	AURREKONTUA
2. Ingur.	Aritzeta-Urumeako lotunea	Eraikuntza lanak	Corsan-Corviam, Balzola, Iburgoyen, Sarasola	97. 842. 479, 72 €
2. Ingur.	Aritzeta-Urumeako lotunea	Zuzendaritza	Idom	3. 226. 519, 35 €
2. Ingur.	Aritzeta-Urumeako lotunea	Kalitate kontroleko saiakuntzak	Eptisa-Cinsa, Labein	1. 816. 503, 62 €
GI-632	Zumarraga-Urretxu-Legazpi	Eraikuntza lanak	Amenabar, Brues y Fdez.	47. 160. 371, 11 €
GI-632	Zumarraga-Urretxu-Legazpi	Zuzendaritza	Euroestudios	2. 327. 078, 32 €
AP-1	Eskoriatza-Isuzkitza	Tuneletako instalakuntzak	Elektra, Ikusi, Indra	18. 846. 893, 59 €
AP-1	Arrasate-Eskoriatza	Tuneletako instalakuntzak	Acisa, Emte, Amenabar	6. 481. 292, 22 €
A-8	Oiartzun-Pasaia, Aritzeta-Aiete, Zarautz-Elgoibar	Zoru-egituraren birgaiketa	Guipasa	9. 987. 433, 86 €
A-8	Oiartzun-Pasaia, Aritzeta-Aiete, Zarautz-Elgoibar	Kalitate kontroleko saiakuntzak	Euskontrol	339. 898, 66 €
				188. 028. 470, 45

Bidegiko Administrazio Kontseiluak gaur eginiko bileran, Donostiako Bigarren Ingurabidea, Eibar – Vitoria/Gasteiz (AP-1) autobidea eta Beasain – Bergara autobia eraikitzearekin eta A-8 autobidea berritzeko proiektuarekin erlazioa duten eta 188 milioi euroko aurrekontua izango duten obrak eta laguntza teknikoak esleitu ditu.

Bidegik, Donostiako Bigarren Ingurabidean, Aritzeta – Urumeako lotunea zatia eraikitzea Corsan-Corviam, Balzola, Ibarгойen eta Sarasola enpresez osaturiko ABEEari esleitu dio 97,8 milioi euroko adjudikazio aurrekontuarekin. Halaber, zuzendaritza lana Idom enpresari esleitu dio 3,2 milioi euroko adjudikazio aurrekontuarekin.

Bidegik, Beasain-Bergara autobian (GI-632), Zumarraga-Urretxu-Legazpi saihebidia eraikitzea Amenabar eta Brues y Fernández enpresez osaturiko ABEEari esleitu dio 47,1 milioi euroko adjudikazio aurrekontuarekin. Halaber, zuzendaritza lana Euroestudios enpresari esleitu dio 2,3 milioi euroko adjudikazio aurrekontuarekin.

Bidegiko Administrazio Kontseiluak, Eibar – Vitoria/Gasteiz (AP-1) autobidean Arrasate – Eskoriatza eta Eskoriatza – Isuzkitza zatietan tuneletako instalakuntzen ekipamendua burutzeko kontratuak esleitu ditu. Arrasate – Eskoriatza zatian, Acisa, Emte eta Amenabar enpresez osaturiko ABEEari esleitu dio 6,4 milioi euroko adjudikazio aurrekontuarekin. Eskoriatza – Isuzkitza zatian, Isuzkitzako 3,7 kilometroko tunela barne, Elektra, Ikusi eta Indra enpresez osaturiko ABEEari esleitu dio 18,8 milioi euroko aurrekontuarekin.

A-8 autobidean, Gipuzkoako 30 kilometrotan, zoru-egituraren birgaiketa lanak burutuko dira (14,7 kilometro Bilbao noranzkoan eta 15,4 kilometro Irun noranzkoan). Lan garrantzitsu hau, lehen berritu ez ziren Oiartzun-Pasaia, Aritzeta-Aiete eta Zarautz-Elgoibar zatietan burutuko da. Lan hauek, Guipasa enpresak burutuko ditu. 9,9 milioi euroko aurrekontua eta sei hilabeteko burutze epea izango ditu.



BIDEGI

GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA
AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA

ZATIA: ARITZETA – URUMEAKO LOTUNEA

- *Luzera: Autobidea (nagusia) **7, 8 kilometro**
Adarrak **7, 9 kilometro**
- *Aurrekontua: **97, 8 milioi euro**
- *Burutzeko epea: **24 hilabete**
- *Udalerrak:
-Usurbil
-Lasarte-Oria
-Donostia-San Sebastián
-Hernani
- *Lanen hasiera: **2007.**
- *Lanen bukaera: **2009.**
- *Egitura nagusiak

- Aritzetako tunela (262 metro)
- Bidezubiak (7)
- Tunel faltuak (2)
- Gaineko pasabideak (3)
- Azpiko pasabideak (5)

Kontratista: Corsan-Corviam, Balzola, Ibarгойen, Sarasola ABEE

Zuzendaritza lanen aurrekontua: **3, 2 milioi euro**

Zuzendaritza: Idom

BEASAIN-BERGARA AUTOBIA(GI-632)

ZATIA: ZUMARRAGA – URRETXU-LEGAZPI

Udalerrak: **Zumarraga**

Urretxu

Legazpi

- Luzera: **2, 1 kilometro**
- Obren aurrekontua: **47, 1 milioi euro**
- Burutzeko epea: **30 hilabete**
- Lanen hasiera: **2007**
- Zerbitzuan: **2009**
- Egitura nagusiak:

- Argisaoko tunela (900 m.)
- Urolako bidezubia (266 m.)
- Urretxu-Legazpiko lotunea
- 4 gaineko pasabide

Kontratista: Amenabar, Brues y Fernández ABEE

Zuzendaritza lanen aurrekontua: **2, 3 milioi euro**

Zuzendaritza: Euroestudios

EIBAR/VITORIA-GASTEIZ AUTOBIDEA(AP-1)

TUNELETAKO SEGURTASUN INSTALAKUNTZAK

ZATIA: Eskoriatza – Isuzkitza

Tunelak: **Isuzkitza (3. 370 metro)**

Zarimutz (420 metro)

Aurrekontua: **18, 8 milioi euro**

Kontratista: Elektra, Ikusi, Indra ABEE

ZATIA: Arrasate-Eskoriatza

Tunelak: **Gurutzetxiki (710 metro)**

Apotzaga (320 metro)

Izurietza (280 metro)

Aurrekontua: **6, 4 millones de euros**

Kontratista: Acisa, Emte, Amenabar ABEE

A-8 AUTOBIDEA

ZATIAK: Oiartzun – Pasaia; Aritzeta-Aiete, Irun M/O; Zarautz – Elgoibar;

Luzera: **30, 1 kilometro** (14, 7 Bilbao noranzkoa/ 15, 4 Behobia noranzkoa)

Aurrekontua: **9, 9 milioi euro (9. 987. 433, 86 €)**

Burutzeko epea: 6 hilabete

Kontratista: Guipasa